

## UNITATE DUALA - PAZIENTEARENTZAKO INFORMAZIOA

Galdakao-Usansoloko Ospitaleko Psikiatria Zerbitzuaren Unitate Dualean ospitaleratuta zaudenerako informazio baliagarria aurkituko duzu gida honetan.

Gurekin harremana daukazu bitartean, harreman hori ona eta emankorra izatea nahiko genuke. Gure gogoia da zuri eta zure senideei laguntzea, hainbat lasterren eta ondoen sendatu zaitez.

Horretarako, kalitaterik goreneko arreta emango dizugu, testuinguru terapeutiko egokia ezarriz, elkarrenganako errespetuan, guztion betebeharrak eta eskubideak zaintzeko ahaleginez, eta konfidentzialtasuna bermatuz.

Horrela bada, onena opatuz, jaso ezazu gure agurrik beroena, zerbitzu honetako profesionalen izenean, baita gure erakundearen eta Osakidetzarenean ere.

### **GALDAKAO-USANSOLO OSPITALEKO UNITATE DUALA**

Galdakao-Usansoloko Ospitaleko bigarren solairuan dagoen Psikiatria Zerbitzua Osakidetzako Barrualde-Galdakako Erakunde Sanitario Integratuaren baitakoa da.

Zerbitzu honetako Unitate Duala pazienteek, senideek eta profesionalok elkarren artean partekatzen dugun gunea da. Bertan, adikzioei lotutako laguntza psikiatriko espezializatua eskaintzen zaio pazienteari, baita daukan krisi psikopatologikoari eta fisikoari osasun-arreta eman ere; ospitaleko segurtasun giroan.

Ospitaleratzea momentu puntuala izan ohi da laguntza-prozesuan. Horrelakoetan, familiako medikuak, beste espezialista batzuek eta osasun mentaleko zentroek (OMZ) esku hartzen dute, eta osasun-sareko dispositiboek koordinatuta jardun behar izaten dute, bai elkarren artean, baita beste erakunde batzuekin ere.

## TALDE ASISTENTZIALA

Zerbitzuan talde-lanean dihardugu: mediku psikiatrak, psikologo klinikoak, mediku egoiliarak, erizainak, gizarte laneko diplomatuak, terapeuta okupazionalak, zeladoreak eta Administrazio langileak.

Arreta eskaintzen dizun profesionalaren izena eta kategoria, momentu oro, ezagutuko dituzu. Lanbide bakoitzak bere uniformeak dauka, eta hartatik jakin dezakezu zein arlotan diharduen bakoitzak.



Mediku psikiatrak berak emango dizu, aurrez aurre, zure prozesuaren eboluzioaren berri; bai zeuri baita zure gertuko senideei ere, konfidentziasuna zainduz. Medikuen bisita egunero izaten da, astelehenetik ostiralera bitartean, goizez. Zalantzarik badaukazu galdetu lasai.

Prozesu terapeutikoan parte hartzen duten beste profesionalak ere berorren alderdi desberdinei buruzko informazioa eman ahal izango dizute: psikologo klinikoak, gizarte langileak, terapeuta okupazionalak, ...

Erizaintzako langileek 24 orduko arreta eskaintzen dizute. Erizain bat eta erizain laguntzaile bat arduratzen dira zu zaintzeaz lan-txanda bakoitzean.

Horiez gain, erizaintzako gainbegiralea eta zeladoreen arduraduna ere badira, eta komenigarri baderitzozu harengana jo dezakezu.

## 1. Ospitaleratzea

Osasun Mentaleko Zentroak baloratuko du zure kasua, eta egoki baderitzo, gure unitatean programatutako ospitaleratzea eskatuko dute.

Talde asistentzialarekin edukiko duzun lehenengo elkarrizketara joateko hitzordua emango zaizu. Zure tratamendurako komenigarria da senide batekin edo zeuk aukeratutako laguntzaile batekin - ospitaleratze-prozesuan erreferente gisa jardungo duena- joatea.

Elkarrizketa horretan psikiatrak eta erizaintzako profesionalak baloratuko zaituzte. Gainera, era honetako informazioa emango zaizu: unitateko arauak, ospitaleratu orduan beharko dituzun objektuak eta ezarritako ordutegiak zein diren. Halaber, baimen informatuko dokumentua sinatu beharko duzu ospitaleratzea borondatezkoa dela onartzen duena.

Ospitaleratzea erabaki ondoren, telefonoz abisatuko zaizu, eta zurekin adostuko da noiz etorri.

Gogorarazi nahi dizugu ez ekartzeko zure ustez baliozkoa den objekturik edo arroparik, ez baitugu geure gain hartuko erantzukizunik, horietakoren bat galduz gero.

## 2. Ospitaleratuta zauden bitartean

### 1. UNITATE DUALAREN ARAUAK

1. Unitatean baimenduta ez dauden objektuak kendu egingo dizkizute ospitaleratu orduan. Objektu horien zerrenda pazienteen eta senideen ospitaleratzeari buruzko informazio-orrian dago jasota.
2. Ospitaleratuta zauden bitartean, talde asistentziala izango da bisitak eta telefono-deiak noiz eta nola egin zehaztuko dituen.
3. Kontuan hartuta gela eta beste espazio komun batzuk partekatzen direla, garbi eta txukun mantendu behar dira.
4. Ingresatutako pertsonen eta diziplina anitzeko taldearen intimitatea errespetatzeko, ezin da bulegoetan sartu, baimenik eduki ezean eta, inoiz ez, besteren geletan.
5. Alta emateko unean entregatuko zaizkizu ospitaleratzeko orduan ekarritako objektuak.
6. Helburu terapeutikoetarako, gernu-laginak hartuko dira egunero.
7. Ospitaleratuta zauden bitartean, zure premiei erantzungo dien dieta emango zaizu, eta ezin izango duzu elikagairik trukatu beste paziente batzuekin.
8. Ospitaleratzeko orduan, ez ekarri balio bereziko objekturik edo arroparik; izan ere, Unitateak ez du bere gain hartzen erabilera pertsonaleko objektuak galdu izanaren erantzukizuna, ezta osasun-langileen zaintzapean ez daudenena ere.
9. Unitatean ez dago baimenduta tabakoa, alkohola edo beste droga batzuk kontsumitzea.

## 2. BESTELAKO INFORMAZIO PRAKTIKOA

### Arropa eta tresna pertsonalak

**Pazienteek arropa eroso behar** dute janzteko eta garbitzeko tresnak, baita ohi denez erabiltzen dituen objektuak ere:

- Betaurrekoak.
- Protesiak.
- Dutxarako txankletak.
- Barik txartela, 5 eurokoa (pazienteak garraibidea hartu ahal izateko, tratamendua programatutako alta eman aurretik uztea erabakitzen badu).
- MP3, liburuak, denbora-pasak, mandalak... gomendatzen ditugu, egonaldia atseginagoa izan dadin.

**Ez da onartzen jatekorik, ezta arriskutsuak izan daitezkeen objektuak ere, hala nola:**

- Objektu zorrotzak.
- Botilak, latak (edatekoa edo jatekoa) eta inolako elikagairik.
- Beira.
- Interneterako konexioa daukaten gailu elektronikoak: mugikorrak, tabletak, erloju adimendunak...
- Hortzetako eskuila elektrikoak, ilerako lixagailua /-kizkurgailua
- Eta abar

Objektu pertsonal guztiak ez daude pazientearen eskura; horregatik, haren gauzak aztertu behar dira, Unitateko leku egokian kokatu ahal izateko.

Objektu baliotsuak familiak eramango ditu (pazienteak baimena eman ondoren) edo Unitateko **kutxa gotorrean** gordeko dira.

**Garrantzitsua:** Segurtasun-arrazoiengatik, baliozko ondasunak (dirua barne) ospitaleratze-aldi osoan zehar zainduta egongo dira eta, alta ematean, bueltatuko.

### Bisitak

- Bisita-erregimena medikuaren jarraibideen arabera izango da.
- Paziente bakoitzeko pertsona bakarra onartuko da, eta bisitan ezin izango da erreleburik hartu. Psikiatrak baimendu behar izan ditu pertsona horiek, bai ospitaleratze aurreko elkarrizketan, bai ospitaleratzearen hasieran.

### Bisita orduak

- Astelehenetik ostiralera: 17: 00etatik 19: 00etara.
- Larunbatetan eta jaiegunetan: 16: 30etik 20: 00etara.

Bisitak, ahal dela, pazientearen gelan egingo dira. Ez zaitetz ibili unitatetik eta telefono mugikorra isilean eduki. Bisitaldian, senidearekin zaudenean, ezin da telefono mugikorrik erabili.

Bisitariak maskara jantzita eduki beharko du, eta eskuak garbitu beharko ditu unitatean sartzean eta irteteen.

### **Informazio-eskaera**

Unitateko **psikiatrarekin** hitzordua eska dezakezu, batez ere ospitaleratu eta alta eman ondorengo uneetan. Medikuekin hitzordua eskatzeko, deitu Psikiatria Zerbitzuko idazkaritzako telefonora: 94-4007020 (astelehenetik ostiralera 8: 30etik 14: 30era).

**Konfidentziasun**-arrazoiengatik, erizaintzako profesionalek ez daukate telefonoaren bidez informazio kliniko emateko baimenik.

Horiek dira Unitateak eskura jarritako telefono bakarrak, logeletan ez baitaukate telefonorik. Horregatik, senideei eskatu nahi diegu bisita egin arte itxaron ezin dezaketen egoeretan soilik deitzeko.

### **3. Ospitaleko alta**

Artatzen zaituen mediku psikiatrak baloratuko ditu ospitaleratzearen iraupena eta altarako data. Behar beste denboraz jakinaraziko zaizu, egin beharreko izapideak egiteko.

Alta ematean, dagokion txostena emango zaizu, jarraitu beharreko tratamenduari eta zainketei buruzko jarraibideekin.

Altaren ohiko ordutegia 9:30etik 11:00etara da.

## 4. Garraioa

Segidan, ospitalerako joan-etorrietarako garraio-bide nagusiei buruzko informazioa daukazu:

<b>BIZKAIBUS</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>- Udalerriak ospitalearekin lotzen dituen autobus-linea.</li><li>- Informazio zabalagoa: <a href="http://www.bizkaia.net">www.bizkaia.net</a></li><li>- Telefonoa: <b>902 22 22 65</b>.</li></ul>
<b>EUSKO TRENBIDEAK</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>- Mikrobuz-lantzadera dago, ospitalea eta Usansoloko tren-geltokia batzen dituena.</li><li>- Informazio zabalagoa: <a href="http://www.euskotren.net">www.euskotren.net</a></li><li>- Telefonoa: <b>902 54 32 10</b>.</li></ul>
<b>TAXIAK</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>- Kanpo kontsultetarako sarreran, taxi geltokia dago.</li><li>- Telefonoa: <b>94 456 58 27</b>.</li></ul>

Asistentziaren kalitatea hobetzeko, eskertuko genuke gure zerbitzuei buruzko zure iritzia, iradokizunak, keak eta esker onak helaraztea.

Hala nahi izanez gero, jakinaraz dezakezu bai Psikiatria Zerbitzuan bertan, bai Pazienteen eta Erabiltzaileen Arreta Zerbitzuan (PEAZ), ospitaleko atari nagusian, 8:00etatik 15:00etara, astelehenetik ostiralera.

Horrez gain, Osakidetzako pazienteen eta erabiltzaileen eskubideen eta betebeharren agiria dago. Agiri hori Ospitaleratze Unitatean eska dezakezu edo Osakidetzako webgunean kontsultatu.

## ZALANTZARIK BADAUKAZU, GALDE EZAZU LASAI

**Unitatean, funtzionamendu egokirako, giro lasaia, ordenatua eta segurua behar da.**

**Hori lortzeko zure laguntza behar dugu.**

**Elkarrenganako errespetuan, hobeto egiten dugu lan.**